

LASARTE-ORIAKO UDALEKO ARKITEKTO LANPOSTU BAT

BETETZEKO 4. ARIKETA

2022ko azaroaren 29an, Lasarteko Udaleko arkitekto plaza bat hornitu eta betetzeko oposizio-lehiaketaren oposizio-faseko 4. ariketa egingo da.

Ariketa honetan, oinarriak kontutan izanda, proba psikoteknikoak edo elkarrizketak egingo dira, izangaiak lanposturako egokiak diren zehazteko.

Idatzizko 3 proba egingo dira. Proba derrigorrezkoa eta ez baztertzaillea da, eta 0tik 7 puntu arte kalifikatuko da.

PROBA IDATZIAK	<i>Gehie. puntuazioa</i>
• Aptitude intelektualak	3 puntu
1. proba	3 puntu
• Gaitasun pertsonalak	4 puntu
2. proba	2 puntu
3. proba	2 puntu
GUZTIRA PROBA PSIKOTEKNIKOAK	7 PUNTU

Ariketak, bere osotasunean, 2 ordu inguruko iraupena izango du eta honakoak ebaluatuko dira:

a) **Gaitasun intelektualak:**

- Eragiketa logikoak egiteko azkartasuna eta malgutasuna

b) **Gaitasun pertsonalak edo jarrerari dagozkionak:**

Kritikotzat jotzen dira honako gaitasun pertsonal hauek:

- Autokontzeptua, autokonfiantza.
- Emozioen eta bulkaden kontrola eta egonkortasuna.
- Estresarekiko eta frustrazioarekiko tolerantzia. Pertseberantzia.
- Autonomia.
- Plangintza- eta antolaketa-trebetasunak.
- Arazoak aztertzeke eta ebazteko trebetasuna.
- Zehaztasuna eta lorpenera bideratzea.
- Bezerearenganako orientazioa.

- Gizarte trebetasunak.
- Malgutasuna, tolerantzia.
- Hobetzeko eta ikasteko prestasuna.

Garrantzitsutzat jotzen diren honako gaitasun hauek ere neurtuko dira:

- Komunikazio-trebetasuna.
- Negoziatzeko eta konbentzitzeko trebetasunak.
- Erakundearen egitura ulertzea eta onartzea.

Ariketaren egunean bertan emango dira ezagutzera proba bakoitzaren xehetasunak (iraupena, item kopurua, etab.) eta zuzentzeko eta kalifikatzeko sistema.